

# Kooperatibismo usufruktuario kubatarrean oinarritutako hainbat iradokizun

**Jabier Lertxundi**

**Ekonomia Zientzietan doktorea, Gestión del Conocimiento ITZARRI SLLren koord.**

Jarraian garatzen den artikulua kooperatibismo kubatarren eredu zehatz baten gakoak azpimarratzen ditu, eta euskal ekonomia sozialean kontuan hartuz gero, oso tresna interesgarriak lortuko genituzke.

Garrantzitsua da aipatzea kooperatibismo-eredu hau nekazaritzaren arlora soilik mugatzen dela. Horrek suposatzen du sektore ekonomiko hori salbuespena dela zentralizatutako ekonomia kubatarrean, eta kanpoko inbertsioa bilatzera zuzendutako gune irekiena dela, zeinean kudeaketa beste modu batean gauzatzen den.

Bestelako mundu bat eraikitzearen aldeko euskal ekonomia sozialerako aplikagarriak diren elementuak eskaintzen dizkigu kooperatibismo-eredu berri honek; hala nola jabetza komunitarioa, zentralizatutako autogestioa, espekulazioaren jaitsiera, esku-hartze sindikala eta kokatzen den herriaren integrazio sozioekonomikoa politika nazional zein internazionalen.

The following article intends to highlight some keypoints which are characteristic of a certain type of Cuban cooperativism and which, in case of being taken into account by the Basque social economy, could become useful tools.

It is important to state beforehand that Cuban cooperativism is limited to the farming sector. This means that this economic sector is an exception to the rule of centralized economy or to the fields opened for direct foreign investment, which are managed in a different way.

The new elements added by this type of cooperativism, applicable to a Basque social economy which is aware of the real possibility of building a different world, refer to community property, to centralized self-management, to reduction of speculation, to syndical intervention and to the integration of the socioeconomic movement into national and international policy of the country in which it is located, and by this means, into international context.

## 1. Kooperatibismo usufruktuario kubatarra: hurbilpen historikoa

Kuban izan den autogestioaren garapen eta zabalpena Bake Garaietako Sasoi Bereziaren (SB)<sup>1</sup> deklarazioaren ondorio zuzena da. Horrek nekazaritza-sektorean figura enpresarial kooperatibo berri baten sorrera suposatzen du: usufruktuarioak eta estatuaren jabetza diren Ekoizpen Kooperatiboaren Funtsezko Unitateak (EKFU). Modu horretan Iraultzaren lehendabiziko garaietako Kanabera Kooperatiben jabego komunitario usufruktuarioa berreskuratzen da, zeina ia desagertuta zegoen, Granja Estatalen (GE) sorkuntzatik aurrera sartu egin zirelako.

Aurrera jo baino lehen, argitu beharra dago ekonomia kubatarrean sektore estrategiko bat den kooperatibizazioaz ari garela, autore askoren iritziz garrantzitsuena. Sektore horren oinarrizko produkzioa azukrearena da.

Kuban, aipatutako EKFUen dekretua baino lehen, beste bi kooperatiba mota existitzen ziren: Kreditu eta Zerbitzuen Kooperatibak (KZK) eta Nekazaritza eta Abeltzaintzako Ekoizpen Kooperatibak (NAEK). Izenek ondo adierazten duten bezala, bata kooperazio-modu erraz bati dagokio eta bestea produkzioari. KZKen jatorria iraultza kubatarren Lehengo Nekazaritza Erreformen kokatzen da, banako nekazariak kooperazio-eredu primarioetan bilduz. NAEKak, aldiz, 1975etik aurrera martxan jarri ziren aurrekoa baino eredu sozialistagoa sortuz, baina GEek suposatzen duten eredu sozialista estatal zentralizatura heldu gabe.

GEak dira hain zuzen ere EKFUen enbrioia, Berlingo Harresia erori ostean zuzendaritza politiko kubatarrek nekazaritza-sektorea indartzea erabakitzen duelako, lur estatalen kooperatibizazioaren bidez. Hasiara batean modu estatal batean zentralizatuta zeuden lurrak jabetza usufruktuario kooperatibo izatera pasatu ziren, horren bitartez langile estatal izandakoen lotura handiagoa lortzeko asmoz (orain langile kooperatibista). Aipatutako guztiaren ondorioz, lur produktiboen % 60 baino gehiago kooperatiben esku gelditu zen<sup>2</sup>.

EKFUak, beraz, sistema kooperatibo sozialista baten barnean sortzen dira, non bi osagai garrantzitsu batzen diren: behar nazionalak lehendabizi eta, geroago, kooperatibaren helburu partikularrak; sozialismoaren eta autogestio kooperatiboaren arteko batze-puntua bilatuz une oro.

## 2. Jabego komunitarioa

Kuban gertatu den jabego komunitarioaren berrezarpenak egokitzapen-arazo larriak ekarri ditu; izan ere, nekazari langile estatalak konbentzitu behar dira, soldatapeko langileak izatetik jabe bazkideak izatera pasatzeko. Arazoak arazo, kultura sozialistak herrialde kapitalistetan jabetza komunitarioarekin sortzen diren arazoak ekiditera eraman ditu kooperatibista berri hauek, herrialde kapitalistetan jabetza pribatuaren kultura oso garatua baitago.

---

1. CAME desagertzeak ekonomia kubatarrean izugarritzko efektu suntsizaila izan zuen eta SB dekretatzera behartu zituen agintariak. SB herritarren artean aurrezteko neurri oso gogorrak suposatzen dituen iraupen-programa ekonomiko bat da, herrialde honetan sozialismoa mantentzeko helburuarekin egina.

2. Iturria: Oficina Nacional de Estadísticas (ONE) 2001, Anuario Estadístico de Cuba, 2000. urtea.

Jabetza komunitarioaren sentimendua ustiapenetik ateratzen diren produktuetan oinarritzen da gehienbat, lurrarekiko atxikimenduan baino gehiago. Horrela, jabetzaren sentimendua etxebizitza eroso bat edukitzearekin lotzen da, edo familiarentzako elikagaien esleipenarekin (autokontsumorako zuzenduta dagoen produkzio komunitarioaren banaketaren bitartez) edota pizgarri ekonomikoekin.

Hala ere, estatu kubatarrak dekretuen bidez egindako EKFUen sorrerak<sup>3</sup> aurreikusten du bazkide kooperatibistei modu usufruktuario batean lurra ematea eta produkzio-bideak jabetzan izatea. Azkenengo horiek kreditu malguen esleipenarekin. Helburua sektore estatalaren nekazaritza-produkzioa errentagarri bihurtzea da, baina inolaz ere ez du izan aurreikusitako horren efektu onuragarririk. Horregatik guztiagatik, sortutako EKFUek errentagarritasuna frogatzen dutenean beraien garapena handitzen da, eta horrela ez izatekotan, beste formazio batzuetan sartzen da aurreikusitako errentagarritasuna handitzeko asmoz.

Modu horretan, herrialde kapitalistetan lur komunalen antzeko jabego komunitarioa finkatu egin da. Ezberdintasuna, aldiz, honakoa da: EKFUen kasuan jabegoa estatuarena da eta herrialde kapitalistetan komunalen jabegoak lokala izaten jarraitzen du.

Kudeatzeko eredua ere oso ezberdina da, EKFUak erakunde komunitarioetan sortzen direlako, eta lur komunalak, aldiz, ustiatze-eredu pribatuetara egokitzen direlako; lur zati indibidualen banaketarekin eta beraien erregularizaziorako Junta Administratiboak sortuz.

Zentzu filosofiko batean, EKFUen lur komunalak ez dira inorenak eta guztienak dira aldi berean, herri kapitalista batenak usufruktuario guztienak diren bitartean. Berezitasun hau garrantzi handikoa da aplikatu nahi den kudeaketa-eredua erregulatu nahi denean.

Honaino ikusitako guztiarekin, honakoa galde daiteke: herrialde kapitalista batek jabetza komunitarioa bultzatzea beharrezko laguntza administratibo barik? Modu horretako esperentziak normalean txikiak izaten dira, eta aurrera ateratzen direnean eragileen aldetik ezohiko indarra eskatzen dute. Beste kasu batzuetan esparru pribatu batean mantentzen dira, eraikuntza komunitario bat baino areago, guttoen zentzua hartuz.

Hala ere, herri kapitalisten barruan jabetza komunitarioko espazioak sortzea helburu duten erakunde sozioekonomikoak existitzen dira. Esparru horiek sortzeko, beharrezkoa litzateke bere euskarria erakunde sozioekonomikoaren jabego zatiak zentzu komunitario batean kudeatzeko prest dauden bazkide usufruktuarioei eskaintzea.

Erakunde sozioekonomiko horien artean hainbat erakunde kooperatibo aurkitzen dira, baita balio ezkertiarak dituzten sindikatuak edota ezaugarri ekonomiko eta sozialak dituzten beste erakunde batzuk ere. Horiek jabetza komunitarioa sustatzeko borondatea baldin badute, irteerarik gabekoa ematen duen tuneletik

---

3. 1993ko irailako 142. Lege Dekretuak biltzen ditu Kubako Alderdi Komunistaren Buro Politikoak hil horren 10. egunean hartutako erabakiak. Gobernu-ekintza horrek formazio kooperatibo hauen sorreraren martxa azkarraren ideia ematen digu.

ateratzea posible izango da. Aldiz, jabetza komunitarioko guneak sortzeari uko egiten zaionean, kudeaketa komunak burges txiki amankomunatuaren mentalitatearen arabera korporatibismoa bultzatzen du.

Herrialde kapitalistetan, aipatutakoa izan ohi da lortutako emaitza. Hala ere, joera hori aldatuko litzateke erakunde horien oinarrian daudenen aldaketa eskatuko balute eta eremu komunitarioen sorkuntzarako prest egongo balira. Gai hauek jorrateak ezinbestekoa izan beharko luke borondate soziopolitiko komunitarioaren printzipioan oinarritutako hausnarketa baten ostean.

### **3. Zentralizatutako autogestioa**

Kontzeptu honek, nahiz eta jabetza pribatuaren ikuspegitik kontraesankorra iruditu, izugarrizko garrantzia hartzen du jabetza komunitarioari aplikatzen zaionean.

Jabetza komunitarioak administrazioaren esku-hartze zuzena behar du, komunitateari zerbitzuak eragiteko eta berbanatze planifikatua egingarria izateko.

Kontzeptuak, berez, bi atal ditu. Batetik, erakundearen autogestioarekiko errespetua, eta bestetik, esku-hartze zentralizatua erakundetik kanpoko organismo administratibo batekin.

Kubako EKFUetan, egitasmo produktiboak kooperatiba bakoitzaren eta estatuaren artean hitzartutako behar nazionalen arabera ezartzen dira. Gainera, lortutako etekinen artean soilik erdia banatzen da, beste guztia inbertsio berrietara zuzentzen da edota makinaren eta bestelako lanabesen erosketengatik Estatuarekin dauden mozkinak ordaintzeko erabiltzen da. Modu horretan garai subsidiatu bat ezartzen da, gerta litezkeen galerak ekiditeko. Kontuan izan behar da EKFUak krisian dauden enpresetatik datoztela eta nekazari langile izatetik jabe usufruktuario izatera pasatzen den eredu berriaren sorkuntzak egokitzapen-denboraldi luzea eskatzen duela.

Ekoiztakoaren zati bat kooperatibisten eta euren familien jakien beharrak asetzea zuzentzen da orobat, modu autogestionario batean. Arlo honetan lortzen diren soberakinak jakien merkatu libreran zuzen daitezke —NAM (Nekazaritza eta Abeltzaintza Merkatua)—, bestelako eredu kooperatiboekin, nekazari indibidualekin eta Kuban oraindik existitzen diren zentralizatutako nekazaritza eta abeltzaintzako eredu estatalekin kompetentzia askean aritzeko.

Honekin guztiarekin, lehenik eta behin sozialismoaren iraupena bermatu nahi da, eta bigarrenik, ezaugarri autogestionario batzuekin AEBk Miamitik zuzendutako interes inboluzionesten aurrean irla babestu.

Horrela, ekoizpena handitzea ere lortzen da; herritarren elikadura, zein hezkuntza eta osasun duin eta doako bat bermatuz. Helburua ez da ekoiztako elikagaiak kooperatibistei soilik itzultzea, baizik eta azken horiek gainerako herritar guztiekin solidarioak izanda, modu praktikoa batean sozialismoa indartzeko baliagarri izatea.

Baiezta daiteke, beraz, lehendabiziko helburua ez dela gizartean txertatzen den banakoa “eroso sentitzea”, nahiz eta garrantzitsua den; baizik eta gizartea osatzen duten bestelako banakoengan “erabilgarri sentitzea”.

Hau guztia bermatzeko, estatuak esku hartzen jarraitzen du; nahiz eta aurreko garai zentralistarekin konparatuta oso ezberdina izan. Balio autogestionario kooperatibistak garatuz sozialismoaren iraupena lortu nahi da, maila nazionalako elkartasuna gaineratuz. Modu horretan, esku-hartze estatala adostutako ekoizpen-planetan, beharrezko hornikuntzan, bermatutako prezioen komertzializazioan eta EKFUen barneko presentzia sindikalean ikusten da.

Garatutako edozein plan sozioekonomikok bezala, puntu onak eta txarrak ditu; baina kritika eta autokritika eraikitzaileera zuzendutako metodologia marxistak burututako eredia dinamikoki aurreratzea eta hobetzea ahalbidetzen du, zeren estatua eta kooperatibismo usufruktuarioa kontraesan antagonikoak ez baitira.

Azken hori oso garrantzitsua da ekonomia kubatarrarentzat, kooperatiba-eredu honek landutako lurren hedapena kontuan hartuta<sup>4</sup>.

Beraz, zentralizatutako autogestioaren kontzeptua onartuko balitz jabetza komunitarioan oinarritutako eraikuntza sozioekonomikoetan, autogestioarekiko errespetua eta erakunde autogestionarioaren inplikazioa lortuko lirateke, bai bere komunitatean bai administrazioak identifikatutako interesetan oinarritutako bere ekoizpenaren berbanatzean.

Euskal Herriari dagokionez, jabetza komunitarioaren garapena onartuko balitz, administrazioak ere esku hartu beharko luke. Gakoa, beraz, esku-hartze horren mailan egongo litzateke, autogestioaren ezarpena modu negatibo batean gauza ez dadin. Baina esku-hartze administratiboa ezin da ezbaian jarri, eta ikuspuntu zientifiko batetik “zentralizatutako autogestioa” terminoa erabat egoki bihurtzen da.

#### **4. Espekulazioaren jaitsiera**

Kapitalismoaren garapenak duen oinarritzko arazoetako bat, lurraren espekulazioa da. Horrek, eraikigarriak diren lurren etengabeko prezioen igoera suposatzen du, pertsonen zein enpresen zor finantzarioa handituz. Egoera horretatik onura handiena ateratzen duena kapital finantzarioa da; baina sistema bera da ekonomia kapitalistaren ahultasun handiengan erori dena. Horrela, sistemak berak porrot egin dezake, krisi sakoneko egoera baten aurrean garatu ezinik.

Gizarte zibilaren ahultasuna erakusten duen egoera honen aurrean, behar minimoak betetzeko bizi osoarako zorpetzea dakarren sistema ekonomiko honen aurrean, jabetza komunitarioaren eta EKFUek aplikatutako autogestio zentralizatuaren ereduak azaltzen dira.

Azken horietan, usufruktuan dauden lurak ezin dituzte bazkide kooperatibistek saldu. Are gehiago, lur horien jabea kubatar herria da, eta beraz, administrazio zentrala da bere kudeaketaren erantzule bakarra.

---

4. EKFUak Kubako azaleraren % 28,4 dira eta nekazal azaleraren % 41,2 (Iturria: ONE 2001, Anuario Estadístico de Cuba, 2000. urtea).

Jabetza pribatua bultzatzen duen administrazio baten kasuan, lurra, ura eta airea natur baliabideak barne, solilik jarraipen administratibo zentralizatu baten bidez ekidin daiteke espekulazioa.

Beraz, horrek aldaketa erradikal bat suposatzen du, jabetzaren tituluak ez direlako pribatuak izango, baizik eta kudeaketa egoki bat bermatzen duen administrazioarenak.

Euskal Herriko hainbat txokotan oraindik dauden lur komunalei dagokienez, espekulazioaren presioak beraien sistema autogestionarioan izugarrizko eragina du. Esaterako, Junta Administratibo askok eta askok ezin dute ezer egin hirigintza-plan edota lur komunalak hartu eta privatizatzen dituzten infraestruturaren berrien aurrean. Lehenengo pauso horretatik aurrera, espekulazioa eragin logikotzat onartzen da.

Horregatik guztiagatik, soilik administrazio zentralizatu<sup>5</sup> batetik uler daiteke jabetza komunitarioaren garapena, modu autogestionario eta zentralizatu batean. Horrek, ikusi dugun bezala, lurraren espekulazioaren freno bezala jokatzen du.

## 5. Esku-hartze sindikala

Kubako EKFUetan, beste eredu kooperatiboetan ez bezala (KZK eta NAEK), nekazari-sindikata mantentzen da. Egoera horrek intelektual kubatar askoren kritika eragin du, esku-hartze sindikala soilik ekoizpenaren emulazioan eta formazioaren arloetan ikusten baitute. Hots, euren ustez ez dute funtzio politikorik bete behar; edo besterik gabe, ez dute bideragarria ikusten sindikatuaren presentzia EKFUek ekarri duten jokaleku enpresarial berriaren barnean.

Pentsamendu hau kooperatibismo erreformistaren ikuspegi baten barnean kokatzen da, enpresa-eredu horietan sindikaturik ez dagoelako (bazkidea aldi berean jabea den kooperatibez ari gara). Horrela, sindikatuak ezin du lan-gaietan parte hartu, Batzar Orokorra delako erabakiak hartzen dituen organo subiranoa.

Edonola ere, ezberdintasun nabari bat dago jabetza sozialeko eredu kooperatiboaren —NAEK— eta jabetzaren eredu usufruktuario komunitarioaren artean —EKFU—. Azken horretan, erabat logikoa da ezaugarri usufruktuarioak mantentzen diren bitartean, sindikatuak negozioen jarraipenean parte hartzea.

Baina sindikatuaren lehendabiziko egitekoa fiskalizazio politikoan kokatuko litzateke, formazio kooperatibo kapitalistetan gertatzen ari den elkertasun ezaren desbideraketa ohikoa saihesteko. Adierazitako azken hori, ulergaitza da gizarte sozialista batean.

Hala ere, eta ikuspegi enpresarialetik zuzenduta, egin litekeen kritika kudeaketa ekonomikoaren esparrutik adieraz daiteke; sindikatu edo elkarte politikoetatik autonomia kooperatiboak ez luke bere garapenerako inongo mugarik izan beharko.

---

5. Lehendabiziko esperientzia bezala, nahikoa litzateke erakunde sozioekonomiko bat aintzat hartzea (ez da beharrezkoa estatu oso bat izatea). Ruesta herrian (Huesca) CGT sindikatuaren proiektua adibide baliagarria litzateke, Esako urtegiaren ondoan, Ebroko Ur Konfederazioaren eskutik usufruktuan eskainitako lurretan (50 urteko epean).

Sindikatuaren lana ekoizlearen emulaziora soilik mugatzeak fiskalizazio politikoaren ezabatzea bultzatzen dezake. Bide horrek sozialismoaren izaera solidario eta berbanatzailea kolokan jarriko luke epe motzean.

Baina EKFUetan sindikatua kudeaketa enpresarialean gertatzen den mugapenean tematu beharko litzateke, kudeaketa fiskalizazioarekin nahastuz.

Zentzu horretan, gobernu kubatarrek emandako “kanaberaren parlamentuen” irtenbidea ez da egokitzat jotzen<sup>6</sup>, zeinean sindikatuari paper garrantzitsua eman zitzaion. Irtenbide horren emaitza jarrera ofiziala berrestea izan zen, bazkidetze interkooperatiboa ekidituz.

Sindikatuaren bestelako lana EKFUko langileen etengabeko formazioan aurkitzen dugu. Lan hau oso garrantzitsua da, eredu ekonomiko autogestionario berri honen garapena bermatzen baitu. Gainera, horrek gainerako gizarte kubatarrengan subjektu autogestionario sozialistaren funtzio humanista eta solidarioan eragina dauka.

Hala ere, ikertutako kooperatibetan sindikatuaren aldetik ekoizlearenganako arretaren funtzioa garrantzitsua dela ikusten bada ere, formazioaren auzia ez da ikusten. Horrela, gizarte-zentroak, medikuak, ekimen kulturalak edota kiroletakoak aurkitzen ditugu EKFUetan, pertsonaren zein kolektiboaren emulazioa gertatzen da, instalazio komunitarioak dauzkate, sozialismoaren hezkuntza garatzen da pizgarri moralen bidez... baina etengabeko formazioa ez dago antolatuta.

Aipatutako bereizketa ez da oztopo sindikatua onartuta eta finkatuta dagoen EKFUetan modu bateratu batean lan egiteko, heziketaren arazoak modu puntualetan aurrera eramanez. Hala ere, partikularrak ez du orokorra bazterten.

Euskal Herriko ekonomia sozialean, esku-hartze sindikalaren posibilitateari ateak itxi zaizkio. Baina eztabaida hori irekitzeko eta sindikatuak gizartearekin eduki behar duen parte-hartzearen eta inplikazioaren garapenerako ondorio baliagarriak ateratzeko beharrezkoa litzateke, lehenik eta behin, jabetza sozialaren ezaugarri pribatua komunitarioa izatera pasatzea. Beste modu batez esanda, bazkidearen mentalitatea, langile jabea bertsio bikoitzean, gehiago hurbiltzen da lehenbiziko premisara eta irabazi ekonomikoak lortzean bere inplikazioa zehazten du, eredu orekatuko luketen elementu sozialak ezarri gabe.

Sindikatuaren ohiko ekintzak ere ez du asko laguntzen eztabaida hau irekitzen; izan ere, ekonomia soziala ez dute kapitalismoaren irtenbidetzat hartzen, sistema orokor baten barnean txertatuta dagoen azpisisistema baten moduan baizik. Baieztapen horrek, kasu gehienetan egia den arren, sindikatuaren papera murrizten du erabat; eta langileen nazioaren eta enpresaren diseinu ekonomikoaren inguruko parte-hartzearen eztabaida ere erabat itxita gelditzen da.

Hortaz, parte-hartze sindikalak euskal ekonomia sozialean bazkidearen (langile jabearen) izaera bikoitzaren hausnarketa eskatzen du, sindikatuarekin batera, era horretan, ekonomia sozialean sindikatuaren funtzioarekiko ondorioak ateratzeko; eta arrazoi horregatik ezin daiteke beste enpresetan ematen ari dena izan.

---

6. Fidel Castro-k “kanaberaren parlamentuak” izeneko bilerak deitzea proposatu zuen, Kubako Langileen Sindikatuak (KLS) zuzenduta.

## 6. Integrazio nazionala eta internazionala

Helburu nazionalak bideratzeko langileen integrazioa da EKFUetan sindikatuak oinarritzotzat duen funtzioa. Hori lortzeko, langile nabarmenduei emulazio pertsonalaren tresna aplikatzen zaie.

Kuban pizgarri moralen eta ekonomikoen arteko eztabaida zabala pizten ari da. Lehenengoa aurreneko fase iraultzailean gailendu zen; planteamendu “guevaristei” jarraituz. Ondoren, pizgarri ekonomikoak garrantzia hartu zuen, eta gaur egun eredu hori da herrialde osoko sektore ekonomikoetan erabiltzen den sistema.

Hala ere, EKFUetan gai honi buruz aritu garenean lehentasun handiagoa ematen diete pizgarri moralei ekonomikoei baino.

Modu horretan, Che-k ezarritako boluntarioen lanaren esparruan pisu handia du oraindik pizgarri moralen sistemak, integrazio nazionalen oinarrituz. Horrela, elkartasun-esparruak ere sortzen dira, non nazioarteko laguntzaren harremanak sakontzen diren; nahiz eta jatorrizko herrialdeetan militantzia soziopolitikoan oinarritutako praktika hau ezohikoa den.

Euskal ekonomia sozialaren kasuan, pizgarri moralak ez du sistema baten babesa, eta aintzat hartzen denean, enpresa gutxi batzuek ezartzen dute. Pizgarri ekonomikoa, berriz, langile bazkidearen mentalitatean funtsezko ideia da.

Pizgarri moralak areagotzeko sistematizatuta egon beharko luke. Sistema hau nazio zein nazioarteko mailara bideratuko litzateke, elkartasuna era naturalean onartuz, giza garapenaren aldeko tresna ekonomiko egoki bezala.

## 7. Ondorioak

- Adierazitako eredia garatzeko, lehenbiziko ondorioa, hauxe da: herri hone-tako erakunde sozioekonomiko zehatzek, administrazio zentralizatuaren ikuspegitik, usufuktuzko jabetza komunitarioa garatu beharko lukete.
- Bigarrenari dagokionez, “autogestio zentralizatuaren” metodoa erabili beharko lukete, hau da, erakunde sozioekonomiko usufuktuarioarentzat autonomia empresarial handiena lortzea; eta administrazio zentralizatuaren fiskalizazio sozioekonomikoa, lortutako irabazien berbanaketa soziala lortzeko.
- Hirugarrenez, eredu hau ezartzeak espekulazioa gelditzeko benetako aukera eskaintzen du.
- Laugarrena, kasu guztietan esku-hartze sindikala beharrezkotzat jotzen da, aurretik bere funtzio garrantzitsuena zehaztuz. Usufuktuzko jabetza komunitario honen eredia ezartzeko, behar-beharrezkoa da sindikatuaren irudia, garatu beharreko esperientzien dinamizatzaile gisa, edota bultzatzaile gisa.
- Proiektu nazional eta internazionalen integrazioan sindikatuaren papera oso garrantzitsua da. Hori guztia emulazio-sistemaren barne, eta langilearen formazioan ere.

## Bibliografia



- Almenán, S. (2001): *La realidad Socioeconómica de la Propiedad en las Cooperativas de Producción Agropecuaria en Cuba (1984-1999)*, Tesis Doctoral, Escuela Provincial del Partido “Carlos Baliño” Villa Clara.
- Gómez Báez, J. (2001): *Modelo Gerencial con Enfoque Estratégico para el Desarrollo Socioeconómico de las UBPC Cañeras de Pinar del Río*, Tesis Doctoral, Pinar del Río.
- Lertxundi Barañano, J. (2002): *Las Potencialidades de la Autogestión en el proceso de Desestatalización de la Economía Cubana (aplicación al sector agropecuario)*, UPV (Departamento de Economía Aplicada 1), Tesis Doctoral.
- Zaldivar, M. (2000): *El Sistema Empresarial en Cuba. Particularidades en la Agricultura. Evolución y Perspectivas*, Tesis Doctoral, Universidad de La Habana.

### **Erabilitako siglak**

- KZK (Kreditu eta Zerbitzuen Kooperatibak)
- NAEK (Nekazaritza eta Abeltzaintzako Ekoizpen Koop.)
- KLS (Kubako Langileen Sindikatua)
- AEB (Amerikako Estatu Batuak)
- GE (Granja Estatalak)
- NAM (Nekazaritza eta Abeltzaintzako Merkatua)
- KAK (Kubako Alderdi Komunista)
- SB (Sasoi Berezia —bake-garaian—)
- EKFU (Ekoizpen Kooperatiboaren Funtsezko Unitateak)

